Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen (https://goierri.hitza.eus/cookieak/).

BEREZIA Zegama-Aizkorri maratoia iruditan

(https://goierri.hitza.eus/2019/06/02/zegama-aizkorri-maratoia-iruditan/)

Bihotz biriken suspertze tailerra eta talo ikastaroa AEK euskaltegiarekin

Beasain (https://goierri.hitza.eus/herriak/beasain/) Gizartea (https://goierri.hitza.eus/gaiak/gizartea/)

Goiztiri AEK euskaltegiak bi ikastaro edo tailer praktiko antolatu ditu datozen egunetan. Batetik, hilaren 31n, 10:00etatik 12:00etara, Beasaingo Igartzako jauregian, bihotz biriken suspertzearen eta kanpoko desfibrilagailu erdi-automatikoaren erabiler...

2018 (https://goierri.hitza.eus/2018)/01 (https://goierri.hitza.eus/2018/01)/24 (https://goierri.hitza.eus/2018/01/24)

L. Agirre

Goiztiri AEK euskaltegiak bi ikastaro edo tailer praktiko antolatu ditu datozen egunetan. Batetik, hilaren 31n, 10:00etatik 12:00etara, Beasaingo Igartzako jauregian, bihotz biriken suspertzearen eta kanpoko desfibrilagailu erdi-automatikoaren erabilera ikasteko tailer praktikoa egingo dute. DYAk emango du tailerra. Hilaren 29a baino lehen behar da izena.

Bestetik, otsailaren 6an, 18:00etan, Arriarango Intxaurpe elkartean talo ikastaroa egingo du, Segurako talogileek gidatuta. Orea egiten ikasiko dute lehenengo eta gero taloa zabaldu eta forma ematen. Ondoren, norberak egindako taloa txokolate, gazta, hirugihar edo txistorrarekin jango dute. Hilaren 2rako eman behar izena; helduek 4 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 2 euro.

Izen-emateak

Bi ikastaroetan parte hartzeko izena eman behar da aurrez, Ordiziako (943 88 91 74) edo Beasaingo (943 88 93 40) AEKren euskaltegietara deituta, edo *goierri@aek.eus* posta elektronikora mezua bidalita.

Goierriko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa zaigu. Egin zaitez HITZAkide! Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

Egin HITZAkide (https://goierri.hitza.eus/hitzakide/izan/)